

2017 URTEA
2018ko aurrekontuak



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ELIZALDE

ZENBATGARREN SAIOA : 7

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2017-11-28	19:30	21:10

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Jexux Leonet, Jon Del Olmo, Agurtzane Lekuona, Iñaki Pikabea

Kopurua: 12

16-30 urte: 0	Emakumeak: 6	Euskaraz: 12
30-50 urte: 1	Gizonezkoak: 6	Elebitan: 0
50-65 urte: 2		
>65 urte: 9		

AKTALARIA: Jon Del Olmo

Gai zerrenda:

	GAIA/JUSTIFIKAZIOA	ERABAKIA
1	Aurkezpena	19:34-19:37 Bileraren egitura aurkeztu da. Zinegotzi taldea aurkeztu da.
2	Aurrekontuak 2018	19:37-19:57 2017ko lehenengo zirriborroa aurkeztu da: diru sarreren aurreikuspena, gastuen aurreikuspena.
3	2017ko balorazioa	19:57-20:08 2016ko inbertsioen balorazioa aurkeztu da.
4	2018ko inbertsioak	20:08-20:14 2016ko bileretan jasotako eskaeren ondoren eta urtean zehar ikusi diren beharren ondoren, 2017rako herri mailan inbertsio egin beharreko handiak aurkeztu dira. Landetxeko eraikinaren inguruan aurreproiektutik exekuzio proiektura asko aldatuko den galdetu dute. Oinarria aurreproiektua dela erantzun zaio, beraz, ez da gehiegi aldatuko. Arizmendiren inguruan, lorategia eta Kontsejupe lotuko ote diren galdetu dute. Oraindik proiektua fase horretan ez dagoela erantzun zaio. Konsolidazioan lanean ari dira. Eusko Jaurlaritzari ondare izaera eskatu zaio. Kanpokoaren inguruan proposamen



		ugari daude, baina ez dago definitua. Konsolidazioaren ondoren etorriko dira erabaki horiek.
5	Mantenu lanak	<p>20:14-20:46</p> <p>Elorrondo etorbideko trafiko arazoak direla eta, konponbiderik dagoen galdetu dute. Ikastetxeetako autobusak, gaizki aparkatutako autoak eta abar. Konponbide bat norabide bakarra jartzea izan daiteke. Dena den, ez dago irtenbide zehatzik. Kiroldegira doazenek ere espaloi gainean aparkatzen dute.</p> <p>Manuel Lekuona etorbidean trafikoa mugatzeko zerbait behar da, batez ere asteburuetan, plaza herriaren gunen nagusia izanik. Hortik dagoen trafikoa gutxitzeko, asteburutan trafikoa desbideratzeko neurriak hartu beharko lirateke.</p> <p>Elizalden aparkaleku arazoa argia dela erantzun zaio, eta Iparralde Etorbidean laister aparkatzeko aukerarik ez da egongo. Horri erantzun bat emateko, aparkaleku gunen nagusia Beheko Plazako inguruan egongo da, eta horrekin jendeak plazara oinez igo beharko du. Beste kontua da baita ere, Manuel Lekuona inguruko trafikoa nola bideratu. Herritarrak dio ez dela agian inbertsio kontua, ohitura kontua dela gehiago.</p> <p>Beste herritarrek diote Kiroldegiaren inguruan (Aldapa Bekoa kalean) aparkatzeko arazoak daudela. Abiadura ere mugatu beharko litzateke. Ikusteko ere arazoak dituzte oinezkoak.</p> <p>Beluteneko autobus geltokiak ez ditu irisgarritasun baldintzak betetzen eta konpontzea komeniko litzake. Erorketak egon dira.</p> <p>Ibargain parkean, zakurrentzat eremua jartzeko eskatu da. Beste auzotan ere atera dela erantzun zaio. Eremu bat sortzen bada jabeen beste errespetatzea eskatzen zaio. Izan liteke aukera bat.</p> <p>Zakurrak bidegorrian. Lotu gabe eramaten dute, lotuta baldin badago, bidegorria alde alde hartzen dute. Isunak jartzeko eskatu du. Bidegorrian seinalitika badagoela erantzun zaio. Hala ere, ez da arazo erraza konpontzeko.</p> <p>Parkearen gaia atera denez, hurrengo urteei begira herri mailako gogoeta bat egin beharko litzateke familientzat dauden espazioak balioan jartzeko. Plan estrategiko txiki bat komeniko litzateke.</p> <p>Herritar batek hondakinen poltsak emateko eskatu du, Erreterian egiten den bezala. Ez zaio erantzun zehatzik eman. Poltsak berak hondakinak dira eta tratamendua zailtzen dela esan du beste herritar batek. Erreterian kuboak ez dagoenez, seguraski horregatik emango dituzte poltsak, organikoarentzat behintzat.</p> <p>Argitegiaren inguruan, gauean argi gehiegi dagoela iruditzen zaio herritar bati. Kontsejupeko soportaletan argi gehiegi dagoela</p>



		<p>iruditzen zaio. Eremu askotan argiak kendu dira. Auditoria egin zen bere garaian, eta horren arabera egiten dira aktuzioak. Ikusiko da Kontsejupeko soportaletako eremua pribatua den edo ez, eta publikoa bada auditoriak zer dion ikusiko dugu.</p> <p>Telefonikako antenaren inguruan galdetu dute, udalak asmorik baduen galdetu da. Eraikina ez da udalarena eta antenari dagokionean herritar batek erantzun du bere garaian azterketa egin zela eta dena ongi zegoela. Ikusiko da nola dagoen antenaren egoera.</p> <p>Elorrondo kaleko adosatuen atzean dauden zuhaitzek lurra zikintzen dute. Laister kimatuko dira eta aurretik garbitu ere egin da.</p> <p>Parke Naturalean garbiketa egingo diren galdetzen du herritar batek, bideak ixten ari dira eta zuhaitzak erortzen dira. Bizikletak debekatu egin dituzte, kamamiloa ezin da bildu. Parkearen kudeaketa aldundiak daruma eta azken urtetan lortu da inbertsioa egitea Larre planaren barruan. Esplotazioa bukatzen ari zaio eta kontserbaziorako joera dago. Kudeaketa honekin bideak ixten joango dira. Pistak garbitzen joaten dira, lehengo urtean 13 bat garbitu ziren. Baina helburu bat duten pistak bakarrik garbitzen dira, bideak ez. Kudeaketa zentzu honekin, udalak ahal duena egingo du. Zaldin azpian bidea itxita dago.</p>																						
6	Balorazioa	<p>21:10-21:12 Balorazio orriak bete dira.</p> <table border="1" data-bbox="582 1220 1252 1624"> <tr> <td>Balorazioa</td> <td></td> </tr> <tr> <td>Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak</td> <td>9,13</td> </tr> <tr> <td>Hizlariak: ondo gidatu dute bilera</td> <td>9,25</td> </tr> <tr> <td>Bileran erabili den metodologia</td> <td>8,63</td> </tr> <tr> <td>Herritarren asistentzia</td> <td>3,63</td> </tr> <tr> <td>Herritarren partehartzea</td> <td>7,13</td> </tr> <tr> <td>Saioa probetxugarria izan al da?</td> <td>8,88</td> </tr> <tr> <td>Egunaren egokitasuna</td> <td>8,75</td> </tr> <tr> <td>Orduaren egokitasuna</td> <td>9</td> </tr> <tr> <td>Lekuaren egokitasuna</td> <td>9,5</td> </tr> <tr> <td>Denera batz bestea</td> <td>8,21</td> </tr> </table>	Balorazioa		Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,13	Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	9,25	Bileran erabili den metodologia	8,63	Herritarren asistentzia	3,63	Herritarren partehartzea	7,13	Saioa probetxugarria izan al da?	8,88	Egunaren egokitasuna	8,75	Orduaren egokitasuna	9	Lekuaren egokitasuna	9,5	Denera batz bestea	8,21
Balorazioa																								
Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,13																							
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	9,25																							
Bileran erabili den metodologia	8,63																							
Herritarren asistentzia	3,63																							
Herritarren partehartzea	7,13																							
Saioa probetxugarria izan al da?	8,88																							
Egunaren egokitasuna	8,75																							
Orduaren egokitasuna	9																							
Lekuaren egokitasuna	9,5																							
Denera batz bestea	8,21																							

Komunikazio bideak	%
Kartelak	11,8
Prentsa/irratia	17,6
Whatsappa	17,6
Ahoz aho	0
Udal aldizkaria	29,4
Internet	23,5